

EKINTZA PLANA EGITEKO GIDA



GUÍA PARA EL PLAN DE ACCIÓN

ESKOLAKO EKOAUDITORIA: ENERGIAREN ARLOKO ADIERAZLE-PROPOSAMENAK

Eskola, bere baitan pertsona-elkarte bat hartzen duen azpiegituz osatutako gizarte-egitura den aldetik, ura kontsumitu eta garbiketarako erabiltzen diren produktuek sortzen duten kutsatu egiten da. Eskolaren jardunak, beraz, eragina dauka ingurumenean.

Kontuan harturik hezkuntza arloan ingurumen hezkuntza hartu dela lanerako zeharkako lerro gisa, eta ikastetxeetan ahalegina egiten ari direla ingurumenarekiko begirunea zabaltzeko ikastetxeetako kurrikulu guztietara, eta arlo guztietan jorratzeko, ikastetxearen kudeaketa bat etorri beharko da ikasleari transmititzen ari zaizkion balioekin.

Ikastetxeek auditoria eta diagnostiko bat egin behar dute jasota gera dadin zer-nolako eragina duten inguruan eta ingurumenean oro har. Behin ikastetxeek bere eraginak ebaluatu ondoren ekintza-planak burutu beharko dituzte hasierako egoera hobetuko duten zenbait jardunbide abian jartzeko, eta horren ondorioz egoeraren azterketa egiterakoan antzeman ziren eraginen efektua ezabatzeko edo gutxitzeko. Erabaki diren jardunbideen jarraipena eta ebaluazioa egin beharko da haien eraginkortasuna eguneratu ahal izateko eta ekintza planak berritu ahal izateko, ingurumenaren kudeaketa-sistema hobetze aldera.

Ekintza planean zehaztutako jardunbideen eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko adierazle batzuk erabiliko dira, emaitzak nolakoak eta zenbaterainokoak izan diren neurtu ahal izateko. Eskola auditoria edo Eskolako 21 Agenda ezartzeko prozesua ebaluatzeko erabiliko ditugun tresnak dira, hortaz, adierazleak. Errealitate konplexuak sinplifikatu egiten dituzte adierazleak eta aurrerapenak neurtzea ahalbideratzen dute, eta era berean alternatibak eta hobekuntzak planteatzen.

Eskolako Agenda 21ean adierazleak planteatu behar dira hiru lan-arloetan hartutako jardunbideak ebaluatu ahal izateko: kudeaketa iraunkorra, berrikuntza kurrikularra eta eskolako parte hartzea.

Aurtengo ikasturtean Eskolako Agenda 21eko lan-eremuan, ikastetxearen kudeaketa iraunkorrari dagokionean landuko den gaia "Energia" da. Ondoren zenbait adierazle-eredu emango dizkizuegu eskoletan lan egiteko lanaren ardatz estrategikoak ezarri ondoren.

1. XEDEA: Argi elektrikoaren kontsumoa gutxitu

Helburua: Argi elektrikoaren kontsumoa gutxitu

Adierazlea: Kontsumitutako kilowatioak/urte

Tresna: Fakturak

2. XEDEA: Gas kontsumoa gutxitu

Helburua: Gas kontsumoa gutxitu

Adierazlea: Kontsumitutako KWh edo m³ak/urte

Tresna: Fakturak

3. XEDEA: Garraio "garbia" sustatu ikastetxera joateko modua bezala

Helburua: Ikastetxera doazenean pertsona kopuru gehiena garraio modu garbiak erabiltzea lortzen ahalegindu; ordenean: oinez edo bizikletaz, trenez edo metroz, autobusez, autoz norbaitekin, autoz.

Adierazlea: Garraio modu bakoitza erabiltzen duen jendearen %

Tresna: Ikaslego, irakaslego eta zentruko langileei egindako inkestak.

4. XEDEA: Kalefakzioaren kontsumoa gutxitu

Helburua: Kalefakzioaren kontsumoa gutxitu. Kontutan hartzekoak dira piztuta dagoen denbora, termostatoaren tenperatura eta kanpoaldearekiko aislamendua.

Adierazlea: Urteko kalefakzioaren kostea

Tresna: Fakturak.

5. XEDEA: Ahal den neurrian energia berriztagarriak sustatu

Helburua: Energia berriztagarria sortzea sustatu, bai dauden instalazioekin, bai instalatu ahal direnekin.

Adierazlea: Ekoiztutako kilowatioak/urte.

Tresna: Zenbatzaileak.

BARAKALDO UDALERRIKO IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA PLANA

Barakaldon Iraunkortasuneko Diagnostikoa egin eta birpasatu ondoren herritarrei hainbat inkesta egin zitzaion, hauek Iraunkortasunerako Ekintza Plana idazteko erabili ziren. Iraunkortasunerako Ekintza Plana bere interesa, irismen eta zailtasunaren arabera epe labur, epe ertainera edo epe luzera garatu behar izango diren hobekuntza ekintza konketuak islatzen dituen programa da.

Iraunkortasunerako Ekintza Plana Ildo Estrategikoez osatuta dago, hauek lan-ardatz nagusiak dira eta ekintzak egiteko proposamenak hauetan oinarritzen dira.

Barakaldoko Iraunkortasunerako Ekintza plana 12 Ildo Estrategikok osatzen dute. Ikasturte honetako lan gai nagusiarekin zuzenki lotuta dagoena **9. Ildo Estrategikoa** da: **Ura eta energiaren aurrezpena eta kudeaketa jasangarria, udalerrian piztea.**

9. Ildo Estrategikoa 2 ekintza programak osatzen dute. Ekintza programak Ildo Estrategiko bakoitzaren helburu zehatzak dira.

Ondoren 9.Ildo Estrategikoaren egitura agertzen da, dena den energiarekin erlazionatuta dauden programak besterik ez dira agertzen.

9. Ildo Estrategikoa: URA ETA ENERGIAREN AURREZPENA ETA KUDEAKETA JASANGARRIA, UDALERRIAN PIZTEA

9.5 Programa ENERGIA BERRIZTAGARRIAK UDALERRIAN BULTZATZEA

- 9.5.1 Udal eraikinetan eguzki panelak jartzen jarraitzea.
- 9.5.2 Energia berriztagarriak eta bioeraikintza laguntzea.

9.6 Programa AURREZPEN ENERGETIKOA LAGUNTZEKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ERABILERA BULTZATZEA

- 9.6.1 Udal eraikinetan energia aurrezteko sistemak jartzea (Argi erreguladoreak).
- 9.6.2 Energiaren udal gastua aztertzea eta energia aurrezteko neurriak ezartzea (Gabonetako argiak).